



LAPAZORRI aisialdi elkarte



IRATXO
LUDOTEKA

PROTOKOLOA

2021-2022 ikasturtean zehar ere Iratxo Ludotekan ezinbestekoa izango da Hezkuntza eta Osasun Sailak ezarri dituzten moduan Covid-19aren prebentziorako neurriak betetzea. Horretarako, denon konpromezua beharrezkoa izango da.

PREBENTZIO-NEURRIAK

1. Aforoa murriztuko da edukieraren %60ra jaitsiz. Beraz, neurri honek taldekatze txikiagoak ahalbidetuko ditu.
2. Musukoa 6 urtetik aurrerakoentzat derrigorrezkoa izango da (Haur Hezkuntzakoentzat ez).
3. Sarreran gel hidroalkoholikoz garbituko dira eskuak.
4. Saioan zehar ere, eskuak maiztasunez garbituko dira ur eta xaboiarekin. 5. Segurtasun distantzia mantentzen edo kontaktu fisikoa saihesten saiatuko gara.
6. Aireztapena eta garbiketa edo desinfekzioaz (espazioa zein materiala) arduratuko gara, saio eta txanda bakoitzaren ondoren.
7. Ludotekarako ur botila propioa eta aldatzeko arropa (barruko arropa) ekarri beharko du parte-hartzaile bakoitzak, materialak partekatzea ekiditeko.
8. Sarrera irteeretan pilaketak saihesteko laguntzaile bakarria etortzea gomendatzen da.
9. Umea egunen batean etorri ezean, hutsegitearen arrazoia azalduko zaio monitoreari, bertaratuen erregistro bat egingo delako. Aurrez etorriko ez dela jakinez gero, hezitzaileoi jakinaraztea eskertuko genuke.
10. Ate ireki egunetan pilaketak ekiditeko, beharrezkoa izango da online beteko den galdetegi baten izen-ematea egunean aforoa gainditzen duten taldeak sor ez daitezen.
11. Gurasoek neurri hauek irakurri eta neurriekin konprometituta daudela azaltzeko, parte-hartze baldintzak onartzen dituztela eta informazioa emateko derrigortasuna dutela onartzeko dokumentu bat sinatu beharko dute onspena emanez.



Mutrikuko Udala



LAPAZORRI aisialdi elkarte

IRATXO
LUDOTEKA

PROTOKOLOA

SINTOMAK EDO KASUREN BAT AGERTUZ GERO, EMANGO DIREN JARRAIBIDEAK:

LUDOTEKAN:

Ludotekan bertan haurren bati sintomaren bat sumatuz gero, zuzenean telefonoz deituko zaie haren gurasoei eta beste taldekideengandik banatuko da kutsatzea saihesteko asmoz musukoa jantziz. Haren gurasoei hurbilen dagoen osasun- zentroarekin harremanetan jartzeko eskatuko zaie kasua profesionalak ebalua dezaten. Bien bitartean, irekitamantenduko da ludoteka.

LUDOTEKATIK KANPO:

Norbaitek sintomak ludotekatik kanpo pairatuz gero, berehala Ludotekako monitoreei jakinarazi beharko zaie email zein telefono bitartez, hauek beste familiak jakinaren gainean jar ditzaten eta osasun-zentroarekin harremanetan jarriko dira eman beharreko pausuak zehazteko.



Mutrikuko Udala